



#CARITASCONUCRANIA

2022-03-14

LEHEN JARRAIPEN TXOSTENA
PRIMER INFORME DE SEGUIMIENTO

 **Caritas**
Gipuzkoa

SARRERA

INTRODUCCIÓN

Larrialdi-kanpaina hasi eta hamar egunera, Ukrainako herritarrei laguntzeko CARITAS GIPUZKOA martxan jarri ditugun jardueri buruzko informazioa helarazten dizuegu.

Ekintza hauen helburua, gerra lehen pertsonan pairatzen ari direnen sufrimendua arintzea, eta, gatazka honek sortu duen elkartasun-sarea aintzat hartzea da.

Hauek dira CARITAS GIPUZKOAren lanildoak:

A los diez días de iniciar la campaña de emergencia, compartimos información sobre las actuaciones que hemos activado en CARITAS GIPUZKOA para apoyar a la población ucraniana.

Estas actuaciones pretenden paliar el sufrimiento de quienes soportan en primera persona la guerra y poner en valor la red de solidaridad que ha despertado este conflicto.

Líneas de actuación de CARITAS GIPUZKOA:



UKRAINAN - EN UCRANIA

Giza-laguntza gatazka eremuan: 100.000 euro.

CARITAS GIPUZKOA, Caritas Ukrainaren beharrei erantzuten ari da, eta, horretarako, dirusarrerak lortzeko larrialdiko kanpaina jarri dugu martxan.

Alde horretatik, gipuzkoarrek kanpainaren hamar egun hauetan emandako **100.000 euro** bidali dira.

Apoyo humanitario en la zona de conflicto: 100.000 euros.

CARITAS GIPUZKOA está respondiendo a las necesidades de Caritas Ucrania, para lo que ha abierto una campaña de emergencia de captación de fondos.

En este sentido, se han enviado **100.000 euros** donados por la ciudadanía guipuzcoana en estos diez días de campaña.

GIPUZKOAN

Koordinazioa, komunikazioa eta sentsibilizazioa

CARITAS GIPUZKOA, administrazio publiko ezberdinekin bilduta, eta erakundeen arteko mahaietan parte hartzen ari da, beste gizarte-erakunde batzuekin batera, Ukrainako pertsonak gure herri eta hirietara iristean aurreikusten diren beharrianak entzuteko.

Entzute jarrera hori, laguntza-ekintza zehatzetan gauzatuko dugu, guztia, administrazio publikoekin elkarlanean.

Administrazio publikoekin lan egiteak duen garrantzia indartzen dugu, bai ukrainarrei harrera egiteko (945 22 22 22), bai eta erakunde horiei baliabideak eskaintzeko orduan ere (errefuxiatuak @euskadi.eus).

Coordinación, comunicación y sensibilización

CARITAS GIPUZKOA se ha reunido con diferentes administraciones públicas y participa en mesas interinstitucionales junto con otras entidades sociales, para escuchar las necesidades emergentes previstas con la llegada de personas ucranianas a nuestros pueblos y ciudades.

Una actitud de escucha que transformaremos en acciones concretas de apoyo, en colaboración con las administraciones públicas.

Reforzamos la importancia de trabajar con las administraciones públicas, tanto en la acogida a las personas ucranianas (945 22 22 22) como para ofrecer recursos a dichas entidades (errefuxiatuak @euskadi.eus).

Ostatu eskaintza

Bizileku beharraz jakitun izanik, CARITAS GIPUZKOAK, Elizbarrutia eta Elkarte Erlijiosoekin elkarlanean, **50 plaza** eskainiko ditu pertsona eta familia errefuxiatuak atepetzeko.

Disposición de plazas de alojamiento

Siendo conscientes de la necesidad de articular lugares de alojamiento, CARITAS GIPUZKOA, en coordinación con la Diócesis y Comunidades Religiosas, ofrecerá **50 plazas** de alojamiento para acoger a personas y familias refugiadas.

Parrokietako harrera sarea

Sor daitezkeen beharrei laguntzeko, CARITAS GIPUZKOAK, lurralde osoan barrena dituen parrokietako harrera sarea jarri du halabeharrez lekuz aldatutako biztanleen eskura.

Red de acogida parroquial

CARITAS GIPUZKOA pone a disposición de la población desplazada, la red de acogida parroquial distribuida por todo el territorio, para acompañar las necesidades que pudieran surgir.

CARITAS GIPUZKOAK, **HOLKULARITZA JURIDIKOA** zerbitzua pertsonen eskura jartzen du, errefuxiatu-izaera arautzeko izapide administratiboen beharrezko jarraipena egiteko.

Lantegi okupazionalen programetarako **eta prestakuntza** eta birziklatze profesionaleko **tailerretarako** sarbidea emango du.

CARITAS GIPUZKOAK, **lan-munduan sartu daitezten, orientazio eta laguntza zerbitzuak** eskainiko ditu, lana lortu ahal izateko, eta, ildo honetan, **Bihotzdun Enpresak** taldearekin lan egingo dugu behar horiek errazteko.

Helduen alfabetatze beharrak bideratuko ditu, non **gaztelaniazko klaseak** jaso ahal izango dituzten.

CARITAS GIPUZKOA pone a disposición de las personas su servicio de **ASESORÍA JURÍDICA** para el seguimiento necesario de trámites administrativos en la regularización de su condición de refugiadas.

Dará acceso a los programas de **talleres ocupacionales y a los talleres formativos** y también de reciclaje profesional.

Pondrá a disposición los **servicios de orientación y acompañamiento en la inclusión laboral** de CARITAS GIPUZKOA para que puedan acceder a un empleo y, en este sentido, trabajaremos con el grupo de **Empresas con Corazón** para facilitar estas necesidades.

Canalizará las necesidades de alfabetización de las personas adultas donde podrán acceder a **clases de castellano.**



CARITAS GIPUZKOA, giza krisialdi larri honetan, elkartasun bide izateko eskaintza luzatu dio Gipuzkoako gizarteari.

CARITAS GIPUZKOAk Ukrainarekin duen kanpainan laguntzen jarraitu nahi dutenek, era honetan egin dezakete:

- Bizum 38029
- web www.caritasgipuzkoa.org
- ☎ 943 440744
- KUTXA: ES85 2095 5001 07 1062435374
- LABORAL KUTXA: ES74 3035 0060 41 0600100001

CARITAS GIPUZKOA se ofrece a la sociedad guipuzcoana para ser cauce y canal de solidaridad en esta grave crisis humanitaria.

Las personas que quieran seguir colaborando con la campaña de CARITAS GIPUZKOA con Ucrania, pueden hacerlo de la siguiente forma:

2022ko martxoaren 2ko Ukrainako Bakearen aldeko Eguneko Jardunaldian, Frantzisko Aita Santuaren hitzak azpimarratzen ditugu: gaur “Ukrainako herriaren sufrimendutik hurbil egoteko eguna da, guztiok anai-arrebak garela sentitzeko, eta Jainkoari gerraren amaiera erregutzeko”.

Resaltamos las palabras del Papa Francisco en la Jornada de oración por la paz en Ucrania, del día 2 de marzo de 2022: hoy, es “un día para estar cerca del sufrimiento del pueblo ucraniano, para sentir que todos somos hermanos y para implorar a Dios el fin de la guerra”.

 **Caritas**
Gipuzkoa